

Arabako Errioxako euskaltzaleak eta euskara zerbitzua lantaldeak Arabako Errioxako Euskararen Nazioarteko Eguna 2018 iragartzeko kartelaren lehiaketarako deia egiten du. Lehiaketa arautuko duten oinarriak honako hauek dira:

OINARRIAK

1. Kartela DIN A4 tamainan egin beharko da, eta bertikalean zein horizontalean egin ahalko da. Edozein material erabili ahalko da (kartulina, folioa...).
2. Honako testu hau jaso beharko da kartelean: “Euskararen Nazioarteko Eguna. Ospakizun bateratua. Lantziego, 2018. Abenduak 2”.
3. Kartelean jasotako motibo edota elementuak identifikatu beharko dira Arabako Errioxarekin, ospakizun bateratua ospatzen den herriarekin eta euskararekin.
4. Lanak orijinalak eta aurrez argitaratu gabeak izango dira, eta beste edozein lehiaketan saritu gabeak izan beharko dira.
5. Jatorrizko lanak entregatzeko epea 2018ko azaroaren 7an, 12:30ean, amaituko da.

6. Sari honetan parte hartu ahal izango du Arabako Errioxako lurraldeko erroldatuta dauden lagunak edo ikastetxeren batean matrikulatuta dagoen ikasle orok. Parte-hartzea banakakoa izango da.

7. Lanak izenpetu gabe eta itxitako gutun-azal batean aurkeztu beharko dira. Parte-hartzaile bakoitzak bere ikastetxeko idazkaritzan, edo bere lurraldeko idazkaritzan utzi beharko ditu lanak, eta horiek aurkezteko **azken eguna 2018ko azaroaren 7a izango da, 12:30ean**; zehaztutako orduan lanak aurkezteko epea itxiko da. Lanak entregatzen diren gutun-azal berean, tamaina txikiagoko beste bat sartu beharko da honako datu hauek zehaztuz: izen-abizenak, ikastetxea, maila eta adina.

Azalpenik behar izanez gero 945 600 252 telefonora deitu (Euskara Zerbitzua).

8. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahalko du.

9. Sari bakar bat egongo da: **euskarazko materialaren lote bat (liburuak, CDak, DVDak).**

10. Gutxienez *Arabako Errioxako euskaltzaleak eta euskara zerbitzua* lantaldeko hiru pertsonek osatuko dute epaimahaia. Lanak aurkezteko azken egunaren biharamunetik hasita, gehienez ere 3 laneguneko epean epaimahaiak lehiaketaren irabazlea nor izan den argitaratuko du.

11. Epaimahaiak hala erabakiz gero, saria eman gabe utzi ahal izango da.

12. Aurkezten den lan bakoitzeko jasoagiri bat emango da. Saritu gabeko lanak berreskuratzeke, jasoagiri hori aurkeztu beharko da.

Lehiatzailearen batek bere obra berreskuratzea nahi izatekotan, Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako Euskara zerbitzutik pasa beharko da (Gasteiz errepidea 2, Guardia).

13. Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak beretzat gordetzen du aurkeztutako lanekin edo horien artetik hautatutakoekin jendaurreko erakusketa egiteko eskubidea, egilearen izena jarrita.

14. Saritutako lana Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillarena izatera pasako da, eta egingo diren jai ekitaldien argitalpenetan erabili ahal izango da, baita sare sozial desberdinetan publikatu ere.

15. Epaimahaiaren ebazpenaren kontra ezingo da errekurtsorik jarri. Ebazpena epaimahakideen gehiengo soilaz onartuko da, eta epaimahiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko almena.

16. Lehiaketa honetan parte hartzen duten pertsonak, lehiaketan esku hartzearekin, lehiaketarako adierazten diren baldintza guztiak onartzen dituzte, eta berariaz men egiten diete baldintza horiei.

Lehiaketan parte hartzen dutenen datu pertsonalak isilpean tratatuko dira Euskararen Nazioarteko Eguna 2018 iragartzeko kartelaren lehiaketa kudeatzeko, 13. puntuari adierazitako salbuespenarekin; Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren egoitzan (Gasteizko errepidea 2, Guardia – Araba) egingo da datu horien tratamendua. Parte-hartzaileek Datu Pertsonalen Babeserako Legeak espresuki aitortzen dituen sartzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango ditu, NANaren fotokopiarekin batera eskaera idatzi eta izenpetua helbide honetara bidaliz: Gasteizko errepidea 2, 01300 Guardia (Araba).



CUADRILLA DE LAGUARDIA
RIOJA ALAVESA
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO
KUADRILLA

Guardia, 2018ko urriak 18

ARABAKO ERRIOXAKO EUSKALTZALEAK ETA EUSKARA ZERBITZUA



EUSKALTZALES DE RIOJA ALAVESA Y SERVICIO DE EUSKERA